

# Bigarren *Aintzina*

**Amelia Hernández Mata**

*Aintzina* aldizkaria bi garaitan argitaratu zen: 1934-37 urte bitartean lehenengo multzoa, eta 1943-45 urteetan bigarrena. 30. hamarkadari dagokionari buruzko lanak hor ditugu, ugariak ez badira ere; *Aintzina*-ren berrargitalpenaz, ostera, gutxiago hitz egin da. Lan honen helburua, bigarren aroko aleen edukien analisisa egitea izango da. Hala eta guztiz ere, aurreko urteetan kaleratutakoaz hitz egingo dugu hasieran, bigarrena aitzindariaren jarraipena izan baitzen. Jarraipena diogu, iturri berberetik edan baitzuten lehenengo gazteek zein bigarrenek, hau da, Lafitterengandik. Oraingo honetan gizartea eta kulturarekin loturiko gaietara mugatuko dira gehienbat, baina aldizkariak abertzaletasunaren kutsua gordeko du.

The magazine *Aintzina* was published in two different periods: between 1934 and 1937 for the first time, and then between 1943 and 1945. We know some papers about the magazine corresponding to the 30th decade, even if they are not many; but we don't know very much about the second period, and this is precisely the aim of this writing: to analyse the contents of the copies of this second period. We will start speaking about the material published during the first years, because the later ones supposed their continuation. We say continuation, because both all of them had the same source: Lafitte. This time we will limit essentially to both social and cultural items, but the magazine will still conserve its nationalist side.

## Aintzina

*Aintzina* aldizkaria bi garaitan izan zen argitaratua. Lehenengo Uztaritzen, 1934-1937. urte bitartean, eta bigarrenez Donibane-Lohizunen, 1943tik 1945erarte.

Lehenengo aroko *Aintzina*, izatez, erregionalismo politiko baterako saiakera izan zen Iparraldean. Hegoaldeko apaizak izan ziren proiektu honen bozeramaile eta teorilariak. 1933an Jose de Ariztimuño “Aitzolek”, Ipar Euskal Herrian alderdi bat eratzeaz zegoela esan zuen *Euzkadi*-n, ez abertzalea ez erregionalista, «confessionnel comme nous, mais pas nationaliste ou régionaliste». (Aitzolek bidaia ugari egin zuen Uztaritzeko seminariora Lafitte kalonjearekin batzartzeko).

Jelkideengandik hurren legokeen Aintzina mugimendua sortu zen; bere lema «Jainkoa eta Lege Zarra». 1933an *Euskal Herriaren Alde* foileto bat argitaratu zuten eta bertan egitarau politikoa agertu zuten (deszentralizazioa, askatasun erlijiosoa, Lege Zaharren berreskuratzea, feminismoa). 1934ko urrian, EAJren «JEL» lemapean *Aintzina. Trait d'union mensuel*

*des Régionalistes basque-françaises* hilabetekaria «mensuel nationaliste modéré<sup>1</sup> et démocrate chrétien» kale-ratu zuten, 1937ko iraila arte. Pierre Lafitte izan zen arduraduna, zuzendari legez Duboscq agertzen bazen ere. Lafitte abadearekin biltzen ziren apaiz eta apaizgai batzuk, edo gazteak besterik gabe, unibertsitariak gehienak, mediku, abokatu eta irakasleak. Haietariko batzuk: Amoçain, Duboscq, E. Goyheneche, J. Mestelan, Jauregi-berri, Dargains anaiak, Mixel eta Pierre Diharce, eta hauekin batera Xabier Diharce<sup>2</sup> anaia gazteena («Funtsean hau bera ibili zen etxez etxe Donibandarrei agerkari berria eskaintzen... Bestalde, eta Lafittek bultzaturik, Martzel Mendiboure ikaskide hazpandarrarekin eta beste lagun zenbaitekin ikastorduetatik landa abiatzen dituzte Katoliko Ekintzak, langile, nekazari ala ikasle gazteen tarteko asmatu berri dituen bilkurak» (Charriton 1994: 13)). *Aintzina*-k *Esprit*<sup>3</sup> astekari demokratikristauaren eragina izan zuen, baita *L'Ordre Nouveau* aldizkariak isuritako mugimendu federalistena ere. Dena dela, politikariek eta herriak ez zuten axolarik agertu nolabaiteko elite kultural bati zuzendutako aldizkari honi buruz.

1933ko apirilaren 23an “Gure

1. Goyhenecheren iritziz: «Hablar de moderación en el caso del grupo *Aintzina* es analizar el pasado con una, a todas luces, evidente falta de perspectiva histórica, eludiendo los condicionamientos que hacían de la sociedad de entonces una sociedad tan distinta a la de ahora, y en la que, actuando bajo la dictadura moral, léase inmoral, del notable local Ibarregaray y del Obispo de Bayona, nos veíamos obligados a disimular nuestro radicalismo abertzale, por la sencilla razón de que, en aquel contexto, no representábamos absolutamente nada; éramos tan solo cuatro chiquillos en torno al padre Lafitte, entonces simple curita, lejano aún a la autoridad que le concede su condición canonical actual, y quien, por lo demás, gozaba de la declarada animadversión de Ibarregaray, el cual definía a Lafitte como “el pez rojo en el agua bautismal”» (Ibarzabal 1978).

2. Iratzederrek: «Orduan ari zen Lafitte jaun apezka, gazte batzuekin, Euskal-Herrizaleen batasuna sor-arazten. Heien ondotik nindoan dena su; eta, igande aratsaldetan, ahapetik bezala hasten zirenean funtsezko gauzez mintzaten, erraiten zautaten: “Hail bezperetara”. Eta joaten nintzen elizarat, latin-salmoak kantatzeko, euskal-geroaz gogoa bete» (Diharce 1993: 14).

3. «Nonbait eskuratzen genituen *Eusko Deya, Sept, Temps Présent, Esprit, Peuples & Frontières* aldizkariak, Alfredo Mendizabal eta Jacques Maritain, François Mauriac eta Georges Bernanos, edo aita Azpiazu-ren liburuak» (Charriton 1994: 15).

Etchea”<sup>4</sup> biltokian euskaltzaleen lehenengo bilera ofizialtzat hartua izan zena egin zuten eta Lafittek horren berri eman zuen *Eskualduna*<sup>5</sup> eta *La Presse du Sud-Ouest*<sup>6</sup> aldizkarietan. Batzarrean Pierre Amoçainek eta Eugène Goyhenechek parte hartu zuten hizlari legez; *La Presse*-k Lafitteren jarreraren azalpena eman zuen (notizia “Eskualtzale gaztea” izenpean agertzen bazen ere, Lafittek berak idatzi zuen):

M. L’abbé Lafitte qui s’intéresse à tous les problèmes basques assistait à la séance. De sa place, il adressa quelques mots aimables aux jeunes conférenciers.

Il déclara qu’il admettait leur programme mais que, comme prêtre, il restait en dehors de leur organisation politique. Il les soutiendrait mais ne participerait pas. L’Eglise n’est pas spécifiquement régionaliste: cependant, on peut dire que le régionalisme est dans la ligne catholique.<sup>7</sup>

Hegoaldeko euskaldunekin harremanak zabaltzen saiatu ziren. 1932tik Iparraldekoak, aita Lafitte eta Eugène

Goyheneche<sup>8</sup> gaztea bereziki, EAJko buruzagiekin aritu ziren elkarlanean; Hegoaldeko mitinetara joaten ziren:

L’abbé Lafitte reconnaitra beaucoup plus tard que ce qui se passait à ce moment-là en Hegoalde –et qu’il découvrit au cours de ses nombreuses visites– fut déterminant à l’heure de constituer un groupe de militants en Iparralde (Larronde 1991).

Bestetik, hegoaldekoak Eskualzaleen Biltzarrean Asanblada Orokorretara joaten ziren hitzaldiak egitera, haien artean José de Eizaguirre, Monzón, Isaac López de Mendizabal eta José de Aristimuño “Aitzol”<sup>9</sup>; Iparraldekoen artean, «politikoki zerbait ezkerago zegoen»<sup>10</sup> Jules Moulrier “Oxobi” eta Diharce anaiak ziren partaideak Biltzarrean. 1933ko irailaren 14an Luhuson egindako bileran nazio-errebindikazioa izango da gai nagusia (*Gure Herria* 1933):

M. l’abbé Moulrier (Oxoby) se lève à son tour et en style tragique pose le problème de “la terre basque aux basques”; il constate que l’abandon des campagnes, le partage forcé du patri-

4. Larrondek: «Ces premières réunions avaient lieu à “Gure Etchea”, théâtre paroissial de Saint-Jean-de-Luz qui dépendait du Curé-Doyen Belleuve; celui-ci voyait tout cela d’un oeil méfiant» (Larronde 1991: 79-160).

5. *Eskualduna* astekaria 1887-1944 urte bitartean kaleratu zen Baionan. Iparraldeko aldizkari irakurriena izan zen irakurle euskaldunen artean; Baionako apezpikuaren kontrolpean zegoen eta fedea eta nekazaritza zituen ardatz nagusitzat errepublikazaleei aurre egiteko ateratako astekari honek.

6. *La Presse du Sud-Ouest* Baionan argitaratu zen 1930-1941 urteetan. Eskuindar errepublikazaleen aldizkaria zen; *La Gazette* eta *Le Courier* eskuineko beste aldizkari baionesak baino irakurle gehiago zuen.

7. Larrondek (1991) aipatzen du *La Presse du sud-Ouest* aldizkaria, 1933ko apirilaren 25ean.

8. Goyheneche-k esaten du: «Nací en Ustariz en el seno de una familia conservadora, en principio ajena a la causa política vasca, lo que no fue obstáculo para que, entre otros gracias a la influencia de Aitzol me hiciera abertzale, pasando a militar en *Aintzina*, primer brote de nacionalismo vasco consciente en Euzkadi Norte, que realizó una labor importante, pese a que hoy alguno, injustamente, trate de minusvalorarlo, tachándolo de movimiento derechista y burgués» (Ibarzabal 1978).

9. Iratzederrek: «Urte hoitan ere ziren, Gipuzko-Bizkaian, abertzaleak bihotza sutan xutitzen: zer gazteria, zoin eder zen heien ikustea, Donibaneko karrika handian Aitzol eta Eizagirre buru. Ageri zen Espainiako gerla hurbiltzen ari zela; eta, kanpotar uhainek itoa zagon gure Euskal-Herri huntan, amor emaiten zioten herriko-jaunek erdalgoari» (Diharce 1993: 14).

10. Ikus Larronde 1994: 42.

moine familial, la lâcheté de quelques âmes sans idéal laissent passer les maisons et leurs dépendances entre les mains des étrangers: il supplie les jeunes de se faire un patriotisme concret, qui soit fondé sur les réalités matérielles et spirituelles toutes proches: le sol, père nourricier de la race; la maison, gardienne des traditions et de la foi, de la santé et de la sainteté.

Mugimendua eskuinerantz aldatu zen; 1936ko martxoaren 18ko zenbakian Jean Ybarnegarayren (Zuberoan), René Delzanglesen (Lapurdiko lehen hautesbarrutian) eta Bernard de Coralen (Lapurdiko bigarren hautesbarrutian) alde bozkatzeko deia egin zuten, *Eskualduna*-rekin<sup>11</sup> batera, Frente Popularraren garaipena kaltegarria litzatekeela bai Frantzia, bai Euskal Herriarentzat esanez.

Aurrerantzean *Aintzina* ez zen inoren alde agertu: diktadurarekin, eskuindarra nagusitzearekin, Estatutua akabo; komunismoarekin are okerrago. Beraz anbiguitatez agertuko dute jarrera politikoa. Bi fronteetan lagunak zituztela esaten zuten, eta etsaien hurbiltzea ezinbestekoa ikusten zutela.

Jokin Apalategiren ustez *Aintzina* ez zen inoiz talde politiko bat osatzera heldu, bazkide batzuek politikan egite garrantzitsua izan bazuten ere; bere ustez, aldizkaria argitaratzera eta aktibitate kultural folklorikoak bultzatzera mugatzen zuten beren egitekoa. Mugimenduaren lorpenez Jean-Claude Larrondek (1994) ere bere iritzia agertzen du:

---

11. J. Díaz Noci (1994:101): «Eskualduna beti hautagai baten alde agertu zen. Hasieran (Etcheverryk berak sortu zuen aldizkaria) Louis Etcheverry bonapartistaren alde jokatu zuen, gero Baionako apezpikutzak bereganatu zuen astekaria, eta 1914.etik Ybarnegaray lagundu zuten».

12. «*Tirábamos 2.000 ejemplares, pero no convencimos a nadie...*», declaró hace unos años su promotor» (De la Granja. 1986).

Mugimendu honen antolaera –militante gazteek, eta maiz oso gazteek, osatua– guztiz malgua eta aktiboa da, ideologikoki hurbil egon litezkeen mugimendu guztiekiko harremanak garatuz; murriztua da, alabaina: mugimendu eskualerrizaleak eta beronen prentsa-organoa zen *Aintzinak* (...) sasoi hartako euskal gizartearen immobilismo politikoa astintzea soilik, eta modu inperfektuz, erdietsiko dute; hain zuzen ere, immobilismo hau Ybarnegaray ahalguztidunak desiratua eta iraurarazia da.

Hogeita hamairu zenbaki kaleratu ostean, *Aintzina* desagertu egin zen, arazo ekonomikoak zirela medio<sup>12</sup>.

### ***Aintzina*-ren bigarren aroa**

1942an *Aintzina* hilabetekaria Donibane-Lohizunen argitaratzeari ekin zioten berriro. Larresoro eta Hatsuako gazte batzuk izan ziren aldizkaria berrargitaratzeko asmoa agertu zutenak, haien artean Marc Legasse eta Xabier Diharce “Iratzeder”. Lafitterengana jo zuten laguntza eske, halaber Dassance jaunarengana; Elissalde eta Oxobik ere lanari ekiteko adorea eman zieten. Irakurleak ere beharrezkoak zirela eta, Ezpeleta, Senpere, Sara, Nafarroa Behereko Baigorri eta Garazi eta beste hainbat herritan aritu ziren irakurle zein idazle bila.

Xarritonek aldizkariaren berrargitaratzeko lehenengo pausuz hitz egiten du, eta atzerapen bat egon zela kontatzen du, X. Diharce eta M. Le-

gasse ez baitziren ados jartzen, ideia politikoak izanik funtsezko arrazoia. Hala ere, Iratzederrek laguntzat hartu zuen beti Marc Legasse, pentsabidearen aldetik bien arteko ezberdintasunak nabarmenak baziren ere (Diharce 1983: 608-609):

Egun batez udatiar batzuekin bazkari handitan zagolarik, mezu bat hel-arazi nion: noiz-nahi ahoan zuela Arana-Goiriren pertsua "Hil nahiago det ikusi baino Aberriaren amaia", noiz-nahi pertsua ahoan, bainan bere bizian gero-ta gehiago gezurra, Herriaren galgarri.

(Elgarren aski adiskide ginen, elgarri garbi mintzatzeko. Eta, geroztik biziak berexirik ere, ez dakit nundik agerten zait beti Mark Belokerat gertakari handietan: hala nola Euskaltzaindian sartzeko egunean, Abadetu nauten elizkizun handian eta holako).

Haren ezazolkeriaz bigarren *Aintzina* ezin sor-araziz ginaudelarik, ni beti Gazteluan nintzen, euskal-lanetan, gogoetan, otoitzean.

Horrez gain, X. Diharceri fraidegai sartzeko eguna heldu zitzaion, prestatu-rik paper guztiak Xarriton eta M. Legassen eskuetan utzi zituela, argitalpenak aurrera jarrai zezan.

Behin lehenengo arazoak konpondu-rik, "Comité d'Honneur" osotu zen: Saint-Pierre Jauna, Gorduseko go- tzaina; Jauréguiberry Andrea, Begirale taldearen Lehendakaria; Louis D- ssance, Eskualzaleen Biltzarreko Lehendakaria; Aita Donostia; George Lacombe euskaltzaina; León abadea, *Gure Herria* aldizkariaren Batzorde- koa; Jauréguiberry medikua, Eskualza- leen Biltzarrekoa; Jean Elissalde eus- kaltzaina; Moulrier abadea, Euskaltza- leen Biltzarrekoa eta Pierre Lafitte, *Gure Herria* aldizkariaren idazkaria.

Gazte euskaldunak biltzea zuten helburu nagusienetarikoa. Ohitura zaharrak berreskuratu nahi zituzten, baita euskal literatura eta berezitasun kulturalak bultzatu ere. Helburuen aurkezpenean politika alde batera utziko zutela baieztatu zuten, «Alema- nak hemen zireno ez baitzitekeen», gaineratuko zuen X. Arbelbidek (1986). Oinarri legez fedea, euskal hizkuntza eta herri-jakintza edukiko zituzten.

Argitalpena Marc Legasse eta André Ospitalen ardurapean hasi zen, Jean Dyboscq administrazioaz ardura- tzen zela. Batzarrak Baionan egiten zituzten, *La Presse*-k zituen aretoetan. Xipri Arbelbidek (1986), Lafitteren bizi- tzari buruzko bere liburuan, diosku zelan Etchegarai, orduan apaizgaia, hainbat apaizi esan zien idazlanak *Aintzina*-ra bidaltzeko honek argitara zitzan. Baina apaizontzat oztopoa zen Legasseraren izena aldizkarian ager- tzea. Arbelbidek jarraitzen du konta- tzen Larzabali proposatu ziotela aldizkariaren zuzendari izatea, Saule bikario jeneralaren adostasunarekin, Larzabalek *Aintzina*-n bertan abertza- leen kontra artikulu bat argitaratzen bazuen; horrela «gauzak garbi izan zitezen» (ibidem). Antza, istilu handiak egon ziren Legassek hori guztia jakin zuenean; bera zela dirua jartzen zue- na, De la Sotaren alabarekin ezkon- duta baitzegoen, eta ez ziola baimenik emango abertzale-diruarekin aldizka- rian abertzaleen kontra artikulurik agertzeko.

1942ko abuztuan izandako bilkuran Zuzendaritzarako Kontseilu bat osa- tzea erabaki zuten, aldizkariaren idaz- kuntzan aritzeko, Euskal Herrian zehar sakabanatutako iharduera kulturalak biltzeko eta aldizkariaren zabalkundea egiteko. Kontseiluko partaideak auke-

ratuak izan ziren: Etcheverry-Aintchart, Charles Hiriart eta Bernard Mendisco, Nafarroa Beherekoak; Michel d'Arcanques, Paul Dutournier (presoa) eta Claude Ithurralde, Lapurdikoak; Zuberora Frantziako aske deituriko aldean zegoenez, ezinezkoa zen alemanek okupatutako aldera ordezkariak bidaltzea. Kontseilukoak ziren baita Larzabal abadea, Aramendy antzerkiar arduratzeko, Gosterratxu eta Harriet pilota sailean, Jean Hillau txistularien berri emateko, eta Irigoin andrea eta Michel Labéguerie, euskal ikasleei buruz hitz egiteko.

Behin zuzendaritza eta lankideak finkaturik, bazeuden beste arazo batzuk. Horien artean, papera aurkitzearena; Goyhenechek arduratu behar zuen horretaz. Legassek 1943ko urtarila-otsaileko alean eragozpen horren berri ematen du: «Les problèmes du papier, du carton, de l'impression, souvent ibles, furent toujours difficiles à résoudre»; eta ekaineko zenbakian: «permettez-moi, fidèles abonnés, d'attirer votre attention sur un point. Parmi vous, très nombreux sont ceux qui ne nous ont pas encore payé l'abonnement de cette année. Vous connaissez comme moi la difficulté de trouver du papier». Ostera, aldizkariaren zabalkuntzaz baikor agertzen da, gazteak gogoz ekin baitzioten lanari. Hori dela eta, argitalpenen kopurua handitu behar izan zuten, «pour faire face au très grand nombre de nouveaux abonnés» (*Aintzina*, 1943ko ekaina). Bestetik, 1942ko abuztuko

alean, *Aintzina*-ko “Nahas-Mahas” sailean, *La Petit Gironde*, *Gazette*, *La Liberté* eta *Le Sud-Ouest* aldizkariak aipatzen dira, aldizkariaren sailen batean *Aintzina* goretsei egiten dutela esanez.

### Aldizkariaren edukiak

Legassek 1943ko urtarila-otsaileko alean aurreko urtean egindakoaren ikuspegi orokorra eskaintzen zuen, baita 1943rako nahien berri eman ere. 1942an aleak hilabetero argitaratuak izanik, azkenengo hiru zenbakiak Almanaka<sup>13</sup> batean bildu izanaren beharra azaltzen zuen; 1943ko urtarril eta otsailekoek ere bat osatu zuten, «tenu par un règlement de presse», berak zioenez.

Urte berriarekin bazuten asmoa aldaketak sartzeko: «nous avons tout d'abord songé à donner une orientation différente à *Aintzina* mais les circonstances nous ont obligé à changer d'idée»<sup>14</sup>. Harpidedunek eskaturik, argitaratu gabeko lan batzuk kaleratu zituzten, *cahier* moduan, hala nola abesti-bilduma bat, *Aintzina*-k hiru urte lehenago ateratako *Kantuz* obraren jarraipena; Euskal Herriaren historiari buruzko lan bat, umeentzat; txistua jotzen ikasteko metodo bat eta beste *cahier* bat Axularren gainean, *Gero* bere obraren hirugarren mendeurrena ospatzearen (G. Iratzeder, Jean Saint Pierre, L. Leon eta P. Lafitteren idazlanek osatuko zuten zenbaki honen mamia).

13. Almanakak arrakasta handia lortu zuten XVIII. eta XIX. mendeetan eta garrantzi handia izan zuten euskarazko prentsaren hasieran, J. Díaz Nocik (1995: 8) dioen bezala: «Gure ustez almanakak izan ziren euskarazko kazetagintzari hasiera eman ziotenak. Almanaka hutsak, hau da, egutegia, feriak eta urtaroei zerikusia zuten nekazaritza gaiak ez ezik, informazioa ere bazekarten. Are gehiago, gehienetan informazioa zen almanaka horien sortzaileen helbururik garrantzitsuena, batez ere Ipar Euskal Herrian...; esan dezagun almanaka horietako asko eta asko aldizkari bati lotuta zeudela, edo aldizkari horiek zein aldizkari horrexen bultzatzaileek argitaratuta».

14. *Aintzina*, 1943ko urtarila-otsaila, 3. or.

Gai berezi horietaz gain, gainontzeko aztergaiak berdinak izango dira ale guztietan: *Dantzak* (Michel Labéguerie), *Pilota* (Chimoun Chori), *Euskera eta Eskola* (Mendibat, Jean Duboscq, P. Lafitte, Marc Legasse), *Euskaltzaletasuna* (Alur, Marc Legasse, Mari Kachkarot, Emile Navarre, Ttun-Ttun), *Historia* (Chabier Gazteiz, Manuel Erobi, Barandiaran), *Musika* (Gabriel Lerchundi, Donostia, Jean Hillau, Pierre Landaburu), *Armarriak* (Le Raleur), *Gazteak* (Jaureguiberry, M.L., Ttun-Ttun, Chingili, Harguindeguy, Mari Kachkarot, A. Berriket, Chechili, Bidart, Gazteiz), *Laborariak* (Baserritarra, Amizkutarra), *Langileak* (Gaston Hirigoyen, J.B.S.), *Politika* (P.L., Marc Legasse), *Presoak* (X.X.X., J.M.), *Onomastika* (George Lacombe, P.L.), *Poemak* (G. Iratzeder, X.X.X., Oxobi, J. Erramundeguy, Zerbitzari, Kantabe, Etchamendy, L. Bichkar, J. Barbier, Elissamburu, Zalduby, J. B. Otchalde, Larralde, Harrichabal, Pierre Dibarrart, Otxalde), *Kontaerak* (Mañech Eiharaberri, P.L., Artojale, Joset Larreguy, M. Madarialde, Beñat Elgoyen, Barbier, Zalduby, Alhur, A. Idiartegaray, ChokoMoko), *Danetariko berriak* (Hik-hek-Hok), *Bibliografia* (P. Lafitte), *Asmakizunak* eta *Hitz zaharrak*.

Gai guztiak Euskal Herriko egoerarekin loturik zeuden. Horietako batzuk apur bat komentatuko ditugu.

### **Erregionalismoa**

Aleen lehenengo orrialdea «Nos principes...» izenburuaz hasten da, eta bertan euren burua erregionalismoaren alde azaltzen dute, Eliza eta Pétainen iritziei atxikiz. Pétainen aburuz erregionalismoak indarra emango dio Frantziari. Beste aldetik, Pio XII.aren

ikuspegiaren arabera, ez dago zertan zapaldu herri berezien ezaugarri kulturalak, linguistikoak... Ondorioz, jarraitzen dute *Aintzina*-koek, ez dira frantziar onak izango, ezta katoliko onak ere, Frantziaren alde aritzen badira baina erregionalismoaren kontra; edota Elizaren babesean iharduten badute herrien eskubide katolikoak aintzat hartu barik, euskaldunak banatzeko ekinean; horrela jokaten dutenak, ez dira ez euskaldun onak ezta frantziar onak ere, ez dira ezer.

*Aintzina*-koen oinarri politikoa erregionalismoan datza eta, behin baino gehiagotan aipatuko dituzte Pétainen ikuspuntuak. Honek, “Révolution Nationale” delakoan, probintziak berreskuratzeke asmoa agertu zuen; ostera, jurista zein ekonomilariek kontrako iritzia azaldu zituzten. P.L. sinatzen duen batek (Piarres Lafitte) “Marche arrière” artikuluan<sup>15</sup> azaltzen du zelan aurrepau batzuk eman ziren lurraldeen deszentralizaziorako, “disons mieux: d’une déconcentration régionale”; baita neurriak ere hartu hizkuntza berezien irakaskuntza bultzatzeko, prefektuak ere izendatuko zirelarik lurraldeetan. Berrero ere kontrako iritzia agertu ziren, Departamentuak berreskuratzeke xedeaz. Aldizkari batzuek ere, hala nola *Le Sud-Ouest de Bayonne*-k, berezitasunen kontrako artikulua kaleratu zituzten, esanez, iraultza garaian berezitasunak eragozpenzat hartuak zirela. Lurraldeen nagusitasuna edo probintzialismoa Erromantizismoarekin lotzen zuten; frantziarren unibertsaltasuna, ostera, klasizismoarekin.

Lehenengo garaiko *Aintzina*-koek erregionalismoaren alde agertu ziren hasieratik, *Trait-d’union Mensuel des*

15. *Aintzina*, 1943ko maiatza, 12-14 orr.

*régionalistes basques-françaises* izenburupean; zioa sinplea zen haientzat:

Voilà pourquoi nous sommes régionalistes. C'est que nous voulons diviser le problème pour mieux le résoudre. Le mal ne se présente pas sous la même forme dans toutes les Provinces françaises. Il serait donc ridicule d'administrer à toutes le même remède<sup>16</sup>.

Lehenengo *Aintzina*-k bidea zabaldu zuen gai honetan: "Les méfaits de la centralisation"<sup>17</sup> artikulua dela, "Vive Pétain! où la décentralisation des industries"<sup>18</sup> dela, "Ecole et monopole"<sup>19</sup>... Beraz, politikoki deszentralizazioaren alde agertzen ziren, ekonomiaren alorrean nekazaritzaren modernizazioa eta lantegietako sindikalismoa bultzatzen zituzten, eta irakaskuntzari zegokionez gurasoek hezkuntza-mota aukera zezatela proposatzen zuten; hau da, Estatuak bereganatzen zuen monopolioaren kontra zeuden. Bigarren *Aintzina*-k ideologia berberari jarraitu zion, politikan gutxiago murgildu bazen ere.

Bestetik, Euskal Museoko aurreko aldean "Zazpiak Bat"-en armarría jarri zutela eta, "Hirurak Bat"-en ordezkioa, separatista izatea leporatu zieten euskaldunei Frantziako adituek. Batzuek, aldakuntza turismoari begira egina izan zela esan zuten, inolako oinarri historikorik gabe. Beste batzuen iritziz, Frantzia eta Espainiako probintziak banaturik ibili ohi ziren Historian zehar, amankomuneko ezaugarriak

inoiz eduki gabe. *Aintzina*-koek aurre eman zieten esanez:

Comment separatistes?... Il faut bien constater que ce sont ceux qui ont créé l'écusson des trois provinces basques françaises en "séparant" les provinces espagnoles qui sont, en l'occurrence des "séparant"<sup>20</sup>.

### **Hizkuntza**

Euskarari zegokionez, Instrukzio Publikorako Ministerioaren Idazkaritza Orokorrak 1942ko martxoaren 13an kaleratutako izkribuaren arabera, posible izango zen bretoiara, flandiera, provenzala eta euskara eskola-orduen ostean irakastea. Estatuak 600 liberako dirulaguntza emango zien maisuei urtean zehar betetako ordu bakoitzeko, eta 900 libera klasea ordu bat eta erdikoa izanez gero. Hala eta guztiz ere Eskola Publikoetako irakasleentzat bakarrik izango zen laguntza hori; libre deitutako eskolek ez zuten dirurik jasoko: «Nous avons cherché à savoir si la rémunération s'étendait aux écoles libres: on nous a dit que non, et nous regrettons bien que la mesure n'ait pas été plus généreuse»<sup>21</sup>, esango zuen Lafittek. Irakaskuntza-gaiaz *Aintzina*-k zuen ikuspuntua agertu zuen Jean-Claude Larrondek egindako 30.eko hamarkadako mugimenduaren azterketan:

Estatu frantsesak irakaskuntzaren monopolioa berak eduki eta eskola "laiko", beharrezkoa eta dohainekoa, 1880ko hamarkadaren<sup>22</sup> hasieran Jules

16. *Aintzina*, 1934ko urria.

17. *Ibidem*.

18. *Aintzina*, 1935eko martxoa.

19. *Aintzina*, 1935eko otsaila.

20. *Aintzina*, 1943ko apirila.

21. *Aintzina*, 1942ko ekaina, 9. or.

22. 1880ko hamarkadan istilu ugari bizi behar izan zuten lpartarrek: 1871an, III. Errepublikarekin, elizgizonak eskoletatik irten behar izan zuten; 1880an Ferryk lege bat atera zuen, euskara eskoletatik



Ferryk sortua, eskola bakar bihurtzeko egin saioen aurka agertzen da kazeta hau; benetako "bahitura tiranikoa" dago Estatuaren aldetik eskola eta udal askatasunei buruz<sup>23</sup>.

Hala ere, *Aintzina*-koak baikor agertzen ziren erabakiaren aurrean, puntu batzuk egokitzeko beharra agertzen bazuten ere. Esaterako, *Mendibat Errienta* izenez sinatzen zuen batek euskal klaseen ordutegiaren egokitasun ezaz hitz egingo zuen, eskola amaitzean haurrak ez baitziren klaseetara joango, besteak jolasten ziren bitartean edota etxean beste egitekorik bazuten. Euskara eskola-orduetan irakastea proposatu zuten, umeak horretan gogoz aritu zitezten.

1943ko martxoaren 13an aipatutako erabakia *Carcopino* deituriko agiri legez eman zuten ezagutzera. Eskualdun Gazteen Biltzarreko batzar egunean –1943ko apirilaren 27an Uztaritzen egindakoa– eskari batzuk kaleratuko zituzten, legea aurrepausu garrantzitsua izan arren, motz gertzen baitzen erabakietan. Eskatzen zuten eskola libreek zein Gobernuak subentzionatuek diru-laguntza jaso zezaten euskara irakatsia izan zedin; egitarau ofizialen barruan irakats zedin; irakasle euskaldunak; euskara bigarren beharrezko hizkuntza izan zedin Euskal Herriko irakasleentzat; Eskualzaleen Biltzarra eta *Eskualduna* aldizkarien trebetasuna lagungarria izan zedin euskararen irakaskuntza antolatzeko.

---

at ezartzen zuena. Kazetaritzan ere gauzatu egin ziren gatazka horiek: Martial Henri Berdoly errepublikazaleak *Le Réveil Basque* argitaratzeari ekin zion 1886an. 1987an, gorrien *Le Réveil Basque*-ri aurre egiteko, *Eskualduna* kaleratu zuen Louis Etcheverry bonapartistak; aldizkari biak gogor ari ziren elkarren kontra 90ko hamarkada arte.

23. Larrondek (1994: 79) 1935eko *Aintzina*-ren 5, 6, 12 eta 15 zenbakietan honi buruz agertzen diren artikulua aipatzen ditu.

24. *Aintzina*, 1942.ko uztaila, 2. or.

## **Nekazaritza**

Herriak husten ari ziren; herritarrak hirietako abantailak ikusirik, hara joan ziren dirua irabaztearren, batzuk herrira bueltatzeko asmoaz, beste batzuk ez. Aldizkarian parte hartzen zutenek ulertzen zuten bizitokiz aldatze hori, baina halakorik gerta ez zedin hirietako abantailak herriko etxeetara ere ekartzea proposatzen zuten: elektrizitatea, ura, sarrerako bide lokazturikoen konponketa, leihoen berriztapena airea sar ez zedin... Beraz, herri-giroa ahaztu barik, aurrerapenen alde onak azpimarratzen zituzten eta horregatik herrietarako eskatu. Honi buruz, Gani-chek (garai honetan Xabier Diharce "Iratzeder"-ek *Xabier* edo *Jean* barik *Ganich* goitizenez izenpetzen zuen) *Aintzina*-n idatzi zuen esanez:

Vieilles demeures construites dans le lieu choisi par l'ancêtre et où le descendant espère survivre dans ses fils. Racines de l'arbre familial. Rêve de l'espatrié. Et refuge de chacun.

De ce tableau merveilleux, émouvant et qui nous est bien cher, il faut hélas (mais pour y remédier) dévoiler les points noirs<sup>24</sup>.

Baserrietako jornaleroen kopurua 1918ko gerratetik urritzen zihoan; arrazoiatariko bat makineriaren erabilpena zela zioten, gizalanaren beharra gutxitzen baitzuen. Hala eta guztiz ere zio erabakigarriagoa zen jornaleroen soldadak laborariek ez igotzea; hirietako irabaziak beti handiagoak izango zirela eta, herritarrak hara joango ziren diru

bila. Bestetik, kanpaina edo sasoinetan irabazitakoa ere gutxi zen; baita irute eta etxeetan egiten ziren hainbat lan txikiz lorturikoa ere. Ekintza hauek Hazparne hirian bildu nahi izan zituzten, herrien kalterako hau ere, herritar gehiago erakartzen baitzuten hirieta-rantz. Elektrizitateaz lanok etxeetan berriro burutuko zirelakoan zeuden. Honi guztiari buruz, hona zer zioen *Gazte* aldizkarian idazten zuen batek, Parisetik etortzerakoan:

Hara egia: sos irabazteko. Hiru ilabetez, gutaik bakotchak irabazi ditu berrehun mila liberaren inguruan. Neretako ezin sinetsia da. Zenbat denbora behar nuke Eskual-Herrian hoinbertzeren irabazteko? Ene herrian ez da posible. Orai etchean lan zorbait egiten ahalko ditut, mekanikak ere erosi nai baititut, ez dut gisa hortan baizik irabazten sosa<sup>25</sup>.

Bazeuden baserria errentan zuten laborariak, nagusiari urtero hainbeste eman behar ziotenak. Etxearen jabea hirian bizi zen, ahalik eta gutxien gastatuko zuen baserria konpontzen, bertan egunero bizi zenak jasan behar zituelarik kondizio txarrak. Hiriko batzuek saldu egin zituzten etxe ondo-ko lurrak, lana makinek errazturik ere hirietako bizibidea hobea izango zen eta. Honen guztiaren kontra sindikatuek (Anidia, Elgartasun, Koperatiba, Zindikat, Muella) eta laborari-biltzarrek esku hartu behar izan zuten, bai baserriak konpon zituzten eta bai lurra sal ez zezaten.

Arazo hauei guztiei aurre egiteko, konponbideak bilatu beharra zegoen:

Laborantzaren atchikitze bortz bideak:

- 1) Jakitatea: hortik laborari ekolen premia; 2) Batasuna: "Credit Agricole" Koperatifa eta elgar-laguntzea; 3) Moldea: lanaren arintzea tresnen berritzea, konduen atchikitzea; 4) Baliatzea (lurretik hartutakoa hondatzen ez utzi); 5) Gochotasuna (famiariena)<sup>26</sup>.

Gizonek denbora ematen zuten "arho, ogi, bilher, ihaski, mahatz eta zer haundi horietaz" axolatzen, eta garrantzi txikia ikusten zioten zeregin horietaz iraskaspenak jasotzeari. Irakaspenak ez zituzten gustukoak, zioten *Aintzina*-koek, baina gauza ona zatekeen neguko orduak, lanik gabekoak, lur eta abereak nola hobekien landu eta hazi ikasten ematea. Ikasbide bat baino gehiago zegoen, eta zaharrek ez zuten zertan joan laborari-eskoletara; nekazaritza zein abelazkuntzari buruzko aholkuak irakurtzea eta horretan trebatzea nahi zuten. Helburu horrekin *Aintzina*-k zein beste hainbat aldizkarik gai hauek landuko zituzten. Honela dio *Aintzina*-k 1942ko martxoko alean:

Aspaldian gure *Eskualduna*-n agertzen dira "Lurmaite" edo "Baratze Zaina"-ren solas zuhurak. Etcheko haur abilenak irakhurtzen ditu denentzat gora-gora, amak arta hartuko du "gizon horiek" segi ditzaten kontseilu zuhur horiek berek ez-bailezakete beharregarik ere deus egin.

Gazteentzako eginak ziren laborari eskolak, 14-17 urtekoentzat; lurra lantzeari utzi gabe, lana jakitez egin zezaten. Aberetan arraza hobereneta-koak zeintzuk ziren ikasiko zuten, lur-rari ongariak ematearen beharraz hitz egingo zuten... Helburua, laborantzatik bizi ahal izateko lurretik ahalik eta gehien irabaztea zen. «Chichari-phikatzale izaiteko ez dela notari baten jakitatea behar, egia. Ez da jakitate

25. *Gazte*, 1956, 4. zkia, 7.or.

26. *Gazte*, 1958, 13. zkia, 6. or.

bera behar, baina bertze bat bai eta hortarik sekulan sobera. Horra zertako Chitchuketa aprendizgoak», esango zituzten *Aintzina*-n “Laborariak” atalean.

Nekazaritzako arazoei konponbidea eman nahian, Gobernuak lege berriak atera zituen, laguntzok hiru helburu zituztelarik: laborariak, etxeak eta etxaldeak.

Laborari ezkondu berriei diru-laguntza emango zitelako hitz eman zuten, baita ezkondu eta bi urte barru haur bat izatekotan ere. Dirutza hau “Allocations familiales” zerga medio biltzen zen. Hainbat laborari arrenkutatzen baziren ere ordainketa berria zela eta, aldizkariak «Gu, Eskualdunak, horren alde gira» dio. “Allocations familiales” hori poltsa bat zen, non dirua sartzen zuten, bai Gobernuak –guztien bi heren– bai eta laborariak ere –etxeko jaun, etxetiar zein bordariak; erdizka ziren etxetiar edo bordariak nagusiekin erdizka egingo zuten diru emate hori; laborari jorneroek ez zuten ordaindu beharrik–; ehuneko honenbeste ordaindu beharko zuten, lantzen zuten lurraren neurrien arabera. Laguntza laborari guztiek jasotzen zuten, 14 urte baino gazteagoak ziren zituzten ume kopuruaren arabera; aprendizgoan zeudenean 17 bete arte jaso zezaketen.

Segurantzaz ere hitz egin zuten; hauek mutualitate edo laborari-elkar-goetan zertzen ziren eta haien bidez sua zela edo izurritaren bat zela laguntza izango zuten nekazariak. Bessetik, laborariak nahitaezko segurantza ordaindu behar zuen 65 urte izan arte; segurantza hori bera eta etxean bizi zirenentzat zen eta etxean lan egiten zuten gainerako laborariak ere probetxu atera zezaketen.

27. *Aintzina*, Almanaka 1943, 23. or.

Etxearen hobekuntzarako eta tresneria erosteko ere dirua ematen zuen Gobernuak, 35.000 liberataraino. Etxaldeari zegokionez, Gobernuak hartutako neurriez, lurra larre uzten zuen jabeari kendu ahal izango zitzaion, bederatzita urtetan laborarietara errentan emateko.

Herrietako bizibidea berpizteko Gobernuak arautu zituen neurriekin jarraituz, herentzia zela eta, aldakuntzak sartu zituen. Iraganeko ohituretara bueltatu ziren, hau da, 1793ko martxoaren 17ko legeak indarrak ez zuen garaira. Baserrira banandu ezik, aitarekin lan egiten zuena jabetuko zen etxebizitzaz aita hildakoan, anai-arrebek zegokien partea dirutan jasoko zituztelarik. Horretaz hitz egin zuen *Aintzina*-k 1943an Almanakan:

Etchaldeak hola phurruskatu badira duela zombait urte, ondoritasunazko lege zozo batzuen gatik da... Orai aldiz aitarekin etchen lanean ari izan den semeak, aita hileta, hunki dezake bere pharteren gainerat etchen berak eta bere emazteak egin lanaren soldata. Horrek ontzen du azkarki etcheke seme edo alabaren phartea. Bertzalde etcheke den haurrak etchaldea saltzerat uzteko orde 5 urteren ephea galda dezake, haurhider beren pharteen emaiteko etchaldea 400.000 liberaz petikako balinbada. 120.000 liberaz petikako etchale ttipia jabeak nahi badu ez ditake sal hura bizi deno, ez pharteka gero<sup>27</sup>.

Hala eta guztiz ere *Aintzina*-n ez ziren itxaropentsu agertzen eskaintza hauen aurrean. *Bettire* izenez sinatzen zuen batek 1943ko maiatzaren alean (23. or.) zioen:

1940-eko hazilaren 21-ean lege bat egin zuten, zitaken baliosena: laborarietara

hitza-eman ziozkaten laguntzarik ederrenak, eta kazetek ez zuten aski espantu, bazela azkenean gobernio bat lur-lanaren aldeko...

Geroztik ohartu gare gobernioko gizonen artean ere hitza ez dela bethi hitz, eta badakitela gibelka, aintzina baino hobeki.

Gobernuak esandakoa astiro baino astiroago betetzen zuela, nekazariak batasunerantz jo behar izan zuten nahikeriak ezik premiak zirenei konponbidea bilatzeko. Horretarako zeuden sindikatuak eta mutualitateak. *Aintzina*-k 1943ko maiatzeko alean Uztaritzeko apaiza zen Jaun Dassancen ekintzak aipatzen zituen, laborarien arazoen inguruan; «orai "Commissions paritaires" delako batasunak moldatzerat dohazi, nagusi eta etchეთiarren goiti-beheitiak argituko eta chuchenduko dituztenak». Batzuek uste zuten batasun hori indarrak gabe geratuko zela behin Aljeriako gerra amaiturik, Gobernuaren egitekoa baitzen, zioten herritarrek, laborariei kentzea hiritarren onerako.

Batasun-prozesu horretan, alde batetik, nekazari guztiak elkartuko ziren arazoez hitz egiteko. Beste aldetik, herri bakoitzak ordezkari bat izango zuen, eta herri buru guztiek sindikatu osatuko zuten. Sindikatu hau beste batzuekin elkartuko zen Eskualde mailan. Bilkura hauetara Gobernuko gizon bat joango zen beti, eta Batzarra

nezakaritza alorreko hainbat erabaki hartzeko gai izango zen: laborarien segurantzaz, lan moldeaz, aprendizgoaz, salerosketez... Biltzar bat osatuko zen probintzia bakoitzeko eta bat edo bi departamentu bakoitzeko. Azkenez, biltzar horiek euren gizonak igorriko zituzten laborantzako ministroarekin zituzten arazoei irtenbidea bilatzeko.

### **Langileak**

Laborantzatik bizi zirenak ez ziren arazoak zituen talde bakarra; *Aintzina*-k langileen egoera latza ere aztertu zuen. Lan gutxi zegoen gerra<sup>28</sup> zela eta; material nahikoarik ez zegoenez lantegi askok itxi egin behar zuten, langileak lanik gabe utziz. Pétain mariskalak legedi bat atera zuen, "Charte du travail" izenekoa, zeinen arabera nagusi-langileen arteko hartuemanak bideratuak izango ziren. Lantegiek sindikatuak moldatuko zituzten, hiru hain zuzen ere: bata, nagusiena; bigarrena, enplegatu buruzagiena; eta azkenengoa, bulegoetako enplegatu eta langileena. Sindikatuok arautuko zituzten langileen lana, gazte aprendizaren egitekoa, familien haurrentzako laguntzak... Nagusi zein langileen arrenkurak epaituak izango ziren, eta buruzagiek ezin izango zuten langileriaz baliatu: bai buruari eta bai menpekoei elkar ondo aditzea eskatu zitzaizen. Gutxienezko soldata finkatuko zuten sindikatuak; gainontzeko irabaziaz trebetasunaren arabera banatuko ziren.

---

28. *Aintzina* aldizkaria gerra giroan garatuko da. Bigarren Mundu-Gerra 1939ko irailean hasi zen, Alemaniak Polonia okupatu zuenean. Pariseko okupazioa 1940ko ekainaren 14an burutu zen. Ekainaren 22an Pétainek Gobernu Vichyn osatu zuen, eta Jean Ybarnegaray bertako ministro izan zen hasiera batean. De Gaulle ekainaren 4an Nazioaren Defentsarako idazkariordea izendatua izan zen. Armistizioa 22an sinatu zuen Pétainek alemanekin, eta sinadura horren arabera Frantzia bi zatitan banatu zuten: libre zirauena eta okupaturikoa. De Gaullek, ezadostasuna agertzearen, ez du benetakotzat hartuko Vichyko Gobernu, eta Gobernu independenterik ez zegoelakoan, 1940ko azaroan Inperioaren Defentsarako Kontseilu bat osatu zuen. 1942ko azaroan Aliatuek Aljeria eta Maroko okupatu zituzten; horren ordainez alemanek Pétainek gobernaturiko Frantzia hartu zuten, 1944ko abuztuan Paris liberatua izan zen arte. Aljeriak Frantziarekin jarraitu zuen 1962 arte.

Hala eta guztiz ere, *Aintzina*-n agertzen ziren iritzien arabera, langileek ez zuten ikusten nagusi-langilegoaren artean zer aldatu behar zen; materialen eskasiaz gehiago arduratzen ziren harremanez baino. Batzuen ustez ingelesek gerla irabaziz gero, "Charte du travail"<sup>29</sup> legedia desagertu egingo zen. *Aintzina*-koak, ostera, arau horien alde agertu ziren:

Ni beti beretik ariko naiz: Charte du travail hortako lege saila, zuzena da, girichtinoa, zentzuzkoa. Horri jarraikiz langilea ez da errekatuko, ez eta ere langilen nagusia, bere menekoez baliatuz, diruz okhituko<sup>30</sup>.

Langilegoari dagozkion gai hauek lantzen aurrerakoia izan zen *Aintzina* Iparraldeko euskal aldizkariaren artean<sup>31</sup>, eta 1934-1937 bitarteko *Aintzina*-ren lehenengo aroan ere artikulua eskaintzen zizkieten gai honi<sup>32</sup>. Geroko agerkari batzuek ere langileen berri emateari ekin zioten, hala nola *Herriak* –1944tik 1969ra arte Lafitteren zuzendaritzapean eta gaur arte dirauena– eta lan honetan behin baino gehiagotan aipatu dugun *Gazte*<sup>33</sup> aldizkariak.

*Herria*-n, 1963ko abenduaren 19an argitaraturiko alean A. Diharce izeneko

batek (Diharce 1963) lantegien beharraz hitz egiten zuen:

Orhoitu behar gira hogoigarren mendearen girela. Gure bizi molde eta pentsaketak, hortarat plegaraz ditzagun beraz.

Bixtan dena da bethi beharko direla laborariak, zeren eta laborarik gabe ez baigira bizitzen ahal. Bainan ez egin laborari aita hala delakotz edo dendari ama hala delakotz. Orhoit gaiten, nahi badugu Eskual-Herria bizi dadin, beharko ditugula lantegiak sor arazi gure herrietan, gure familien hazteko.

Astekari honetan 1970ko 1054. zenbakian industriarik ezaren arazoak aipatu zituen R. Camblongek (1970): barrualdeko herriak husten ari zirela, gazteek emigratu egin behar zutela... :

Aski da, bestalde, jakitea Baionako Eskola Teknikatik ateratzen diren gazteetarik %70 joaiten direla hemendik kanpo, ikusteko zinez handia dela indusleriaren behar hori;

jarraian, lantegi berriak sortarazteko betebeharrak aipatzen zituen: gogo berri bat, plan berriak, biltzar ekonomikoak eta eskola teknikoak sortu, dirulaguntzak, industri-eremuak, estudio demografikoak, tresnak hobetu,

29. «La Charte du Travail, publiée en octobre 1941, acheva l'organisation corporative de l'activité économique par l'affirmation de 'familles industrielles et commerciales... organisées en vue de gérer en commun les intérêts professionnels de leurs membres et d'apporter leur concours à l'économie nationale, selon les directives de pouvoirs publics» (Ambrosi-Ambrosi 1986).

30. *Aintzina*, 1943ko maiatza.

31. Lehenagoko argitalpenak ez ziren langilegoaz arduratzen Iparraldean: *Le Réveil Basque* (1886-1894) astekari errepublikazaleak politika zuen helburu, nekazaritzari buruzko testuak ere sartzen bazituen ere. *Eskualduna*-k (1887-1944), gorriei aurre egiteko xurien agerkaria, nekazaritza zuen funtsezko gaia, erlijioarekin batera. Garaikoen artean ez dugu aldaketarik ikusten: *Elgar* (1934-1936) aldizkariaren Pariseko Eskualzaleen Biltzarraren atalak argitaratzen zituzten; Hegoaldeko EAJren ekintzei buruz eta Pariseko euskal pilotaz hitz egiten zuen gehienbat; 1948-1948 bitartean berriro kaleratu zen kulturaz aritzeko. *Gure Herria* (1921-1939,1950) hilabetekari kulturala zen, antropologia, natur zientziak, historia eta literatura lantzen zituena.

32. "Vive Pétain! ou la décentralisation des industries" (*Aintzina*, 1935ko martxoa), "Contre le chômage" (*Aintzina*, 1935ko ekaina), "Zindikatez" (*Aintzina*, 1936ko otsaila)...

33. Iparraldeko *Gazte* (1945-1963) eta Hegoaldeko *Gazte* (1961-1972) ditugu. Eskualdun Gazteriaren hilabetekaria zen, euskal arloak lantzen zituena: langileria, euskara, folklorea...

buruzagi eta langileen arteko batasuna bideratu sindikatuen bidez (*Aintzina* ere behin eta berriz agertzen zen sindikatu eta elkar ulertzearen alde), eta «Psikologiaren aldetik: eskualduneri konpreniarazi behar dugu ez duela turixmoari kalterik egiten, eta ez dutela gorrien beldurren bizi behar industria aipatzean» (ibidem).

*Gazte-k, Aintzina-k eta Herria-k* bezala, sindikatuen beharra ikusten zuen «badira, alabainan, adin batetako jendetan zindikataz mesfidatzen direnak ez dakit zer debrukeria edo bazter nahasteko makinik balitz bezala»<sup>34</sup>; sindikatuen egitekoen artean nagusi eta langileen arteko harremanak bideratu beharra azpimarratzen zuen, «zeren elgarrekin bat eginez Jainkoaren izenean dugu ihardetsiko bizi hobeago bat, girichtinoari doakona»<sup>35</sup> (hiru aldizkariak buruzagi eta langileen arteko harreman txarrak eta irainak baztertzearen egokitasuna aldarrikatu zuten).

### **Presoak**

Pétainek alemanekin sinatutako Armistizioaren arabera Frantzia bi zatitan banaturik suertatu zen. Iparraldekoa eta Atlantikoko eskualdea alemanen menpe geratu zen; hegoaldekoak, aske zirauen. Horrez gain, Frantziak guda-talde alemaniarrek elikagaiz hornitu beharko zituen, gastu guztiak frantziarren esku baitziren. 1943an 1920-1922 urte bitartean jaiotako gazteentzat derrigorrekoa izan zen “Service du Travail Obligatoire” Alemanian betetzea. Gizonek ere Alemaniara joan behar izan zuten lan egitera, berrogeita hamar urterartekoak, baita emaku-

me ezkongabeek ere, hogeita hamar urtekoak helduenak. 500.000 langile joan ziren Alemaniara. Horren truke, alemaniarrek 100.000 preso aske utzi zituzten eta beste 250.000 askatutako langile bezala aritu ziren. *Aintzina*-koak kezkatu egiten ziren presoek. Aldizkaria bidaltzen zieten, baita haien berriak jaso ere: euskal gaiez hitzaldiak antolatzen zituzten, musika eta dantzak, antzerkia... Familiakoek zera esaten zuten *Aintzina*-n:

Etchetik urrunduz berritz, batetik emazte haurren grina hor eta bertetik, han zer ikusi beharko dugun ez jakin. Daukute erraiten harat joanez, laborari presonierak libratuko ditugula. Kontsolamendu horren mentura badugu halere... Bainan noiz othe eta zonbat libratuak izanen dira?<sup>36</sup>.

40.eko hamarkadako *Aintzina* aldizkariak Donibane Lohizune eta inguruko bizilagunen arteko komunikabidea izan nahi zuen:

Eskual-Herriko biziaz griñatuko gare. Gure arima, gure ohidurak, gure jostetak, gure mintzaia, gure Arbasoen ongaitzak aiphatuko ditugu. Gazteen arteko lokharria izanen da, gure agerkari chume hau<sup>37</sup>.

Kontseilu bat zueri, laborariak. Erosazue guziz “Aintzina” eta hemen hainitz chehetasun atzemanen duzue lege berri horietaz<sup>38</sup>.

Voici donc une suggestion qu’Aintzina présente respectueusement à notre ministre de d’Education, estiment, en toute logique, que si l’on veut sincèrement appliquer l’arrête Carcopino, il

34. *Gazte*, 1957, 2. zkia.

35. *Gazte*, 1957, 8. zkia.

36. *Aintzina*, 1942ko uztaila, 20. or.

37. *Aintzina*, 1942ko urtarrila, 3. or.

38. *Aintzina*, 1943ko martxoa.

faudrait, quand même! en fournir les moyens<sup>39</sup>.

Beraz, aldizkari honetan saiatu ziren herriarengandik hurbil egoten, zituen arazoei laguntza eskaintzen, eta gazteena zen bereziki kontutan hartzeko taldea:

Choco huntan beren hitza emanen ahalko dute Eskualdun gazte guztiek: begirale, laborari, langile, arrantzale, ikhasle, errient... erranen ahalko baitu zer zaion gaizki eta zer ongi, zer egin behar liteken eta zer ez<sup>40</sup>.

Lehendabiziko beharrei erantzuna ematearekin batera, bazuten beste helburu nagusi bat, hau da, euskaldunak bereizten zituzten ezaugarriak, galtzen zihoazenak, berreskuratzea: euskara, euskal dantzak eta jokoak, bertako musika...

*Aintzina*-koen planteamendua kontserbadorea zen, orduko Iparraldeko gizartea kontserbadorea zen hein berean: Jean Ybernagaray politikariaren eskutan zegoen; eskuin katolikoa eta inobilismoa nagusi ziren beste guztien gaintik («Iparraldea kontserbadoreen gotorleku eta eskuin katolikoaren aterbe agertzen zaigu», Larronde 1994); honekin batera, Gobernu frantziarraren zentralismoak Euskal Herriko garapena oztopatzeari ekin zion, eta orduan aldizkari errejionalista honen kutsu kontserbadore eta folklorikoa indartu egin zen:

Eugène Goyhenecheren ustez (1979), 1942ko *Aintzina*

s'arbrite derrière certains slogans de la "Révolution Nationale" promise par Vichy: retour à la tradition, abolition du centralisme jacobin, etc., mais sans y croire, et n'hésite pas à écrire que le fait basque est "une réalité naturelle et non pas un mythe de convention".

Honi, gaineratu beharko genioke urte hauetako literaturaren jokaera Euskal Herrian –Hego Euskal Herrian hain zuzen ere, garai honetan bertan kokatzen baitira aitzindariak–, non Sabino Aranaren pentsaera nagusitzen zen (Juaristi 1987):

La ideología nacionalista conserva, hasta muy avanzado el siglo, un poso reaccionario y clerical que la hace incompatible con una visión moderna del mundo y la literatura.

Kontutan hartu behar dugu *Aintzina* Hegoaldeko Sabino Aranaren EAJtik gertu zegoela –"Jainkoa eta Lege Zarra"ren lemapean–, hango eta hemengo idazleak elkarlanean zebiltzala.

Bigarren *Aintzina*-ren azken zenbakia 1943an agertu zen, Eugène Goyhenechek zioenaren arabera (1979), Larzabal eta Marc Legassen arteko arazoak zirela medio:

En 1943, à la suite d'un conflit personnel avec Larzabal, Marc Legasse met fin à *Aintzina*, mais le second *Aintzina* comme le premier, et Ybernagaray ne s'y trompa point, prit une position, en fin de compte, nationaliste.

39. Legasse, Marc: "Où sont les Cours de Basque?", *Aintzina*, 1943ko martxo.

40. "Eskual-Herriko gazteen bizia", *Aintzina*, 1942ko urtarrila.

## Bibliografia

- Agirreazkuenaga, J., (1988): "Prensa euskaraz: 1936ko Gudaldian eta lehen Euskal Gobernuaren garaian", *Jakin*, 50, 95-122.
- Aintzina*, 1934, (1935), (1936), 1942, 1943, 1944.
- Aintzina*, 1943ko Almanaka.
- Aintzina*, 1944ko Almanaka.
- Altzibar, X., (1991): "Euskarazko gazetaritzaren agerpena eta haren lotura Frantziako politikarekin", XI Congreso de Estudios Vascos, *Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*, Donostia, 173-178 orr.
- Ambrosi, Ch., Ambrosi, A., (1986): *La France 1870-1986*, Masson, Paris, 220-261 orr.
- Apalategi, J., (1979): "Aintzina o el regionalismo nacional", in *Los vascos de la nación al Estado*, Elkar.
- Arbelbide, X., (1986): *Piarres Lafitte, bere bizia*, Elkar.
- Beltza, (1976): *El nacionalismo vasco (1976-1936)*, Editorial Txertoa, Donostia.
- Camblong, R., (1970): "Industria bai ala ez", *Herria*, 1054 zkia.
- Charriton, P., (1994): *Xabier Diharce "Iratzeder"*, Eusko Ikaskuntza.
- Delbreil, J.C., (1990): *Centrisme et Démocratie-Chrétienne en France. Le Parti Démocrate Populaire des origines au M.R.P. 1919-1944*, Publications de la Sorbonne, Paris, 235-272 orr.
- Díaz Noci, J., (1994): *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza.
- , (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena, (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza.
- Diharce, A., (1963): "Eskualdun gazteriak norat ari giren", *Herria*, abenduaren 19a.
- Diharce, X., (1979): "A propos d'Aintzina", *Bulletin du Musée Basque*, 79, 37-38.
- , (1983): "Orroitzapen purrukkak", *Biziaren Olerkia*, Ediciones Mensajero, Bilbo.
- , (1993): *Beloke-ko abatetxearen historia. Ehun Urte Jainkosemeen alde (1875-1975)*, Ediciones Mensajero, Bilbo.
- Gazte*, 1956, "Pariseko eskualdun gazteria", 4. zkia, 7. or.
- Gazte*, 1957, "Eskualdun gazteriarren eguna Uztaritzen", 10. zkia, 5. or.
- Gazte*, 1958, "Eskolaz eskola", 19. zkia., 8. or.
- Goyheneche, E., (1979): *Le Pays Basque. Soule, Labourd, Basse Navarre*, Société Nouvelle d'Éditions Régionales et de Diffusion, Pau.
- Granja, J.L. de la, (1986): "La prensa nacionalista vasca: 1930-1937. Una aproximación histórica", *La prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos*, [I Encuentro de Historia de la Prensa. Manuel Tuñón de Lara zuzendurik], UPV.
- Gure Herria*, 1933, "Eskualzaleen Biltzarra", 5 zkia, 466-472 orr.
- Ibarzabal, E., (1978): "Eugene Goienetche", in *50 años de nacionalismo vasco. 1928-1978 (a través de sus protagonistas)*, Ediciones Vascas, Donostia.
- Iztueta, P., (1986): "Eliz mugimenduak Euskal Herrian: Baserri Gaztediaren eta Eskualdun Gazteriarren kasua", in *Euskal Herriaren Historiaz III. Kultura eta portaera erlijiosoak Euskal Herriaren historian zehar*, Donostiako Udako V. Ikastaroak, Rafael López de Atxurak zuzenduta.
- Jiménez de Aberasturi, J.C., (1994): "Los vascos en la II Guerra Mundial", *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*, El Mundo, Bilbo.
- Juaristi, J., (1987): *Literatura vasca*, Taurus, Madril.



- Larronde, J.C., (1987): "Las repercusiones políticas de la Guerra Civil en Iparralde", in *La Guerra Civil en el País Vasco 50 años después*, Carmelo Garitaonandia eta José Luis de la Granja (ed.), UPV, Bilbo.
- , (1990): "La prensa de Iparralde y la Guerra Civil", *Comunicación, cultura y política durante la II República y la Guerra Civil*, Tomo I, M. Tuñón de Lara (dir.).
- , (1991): "Eugène Goyheneche, un militant basque dans les années 30", *RIEV* 1, 79-160.
- , (1994): *Eskualerri-zaleen Biltzarra (1932-1937). Euskalerrizaleen mugimendu abertzalearen sortzea Iparraldean*, I Certamen de Ensayos Históricos J. A. Aguirre, Fundación Sabino Arana, Bilbo.
- Letamendia, P., (1987): *Nationalismes au Pays Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux.
- Maiatz*, 1982, "Nor zira, Piarres Lafitte", 1 zkia, 1 hiruhilekoa.
- Ruiz de Gauna, A., (1991): *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*, Eusko Ikaskuntza 1.